

27

Motx

SASI GUZTIEN GAINETIK

OROITZAPEN EDER BAT

Arrate Egaña
Iker Gonzalez Libano

ILUSTRAZIOAK
Marimar Agirre

erein



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko urrian

Azala eta liburuaren diseinua:

Erein

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudia:

Marimar Agirre

© Arrate Egaña eta Iker Gonzalez Libano

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-995-6

L.G.: D 913-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia


Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Motx

Oroitzapen eder bat

Arrate Egaña · Iker Gonzalez Libano
Marimar Agirre



erein

Motx pailazoa bere logelan dago, baserriko leihotik begira.
Jostailuzko globo aerostatiko zahar bat dauka eskuen artean.

Leiho azpian, zuhaitz eder batek hosto berriak ditu;
udaberria datorrela seinale.

Amona gelan sartu eta hurbildu zaio.

—Triste al zaude? –galdetu dio bilobari.

—Zuhaitzari begiratzeak triste jartzen nau.

—Oroitzapen ederrak gogoratzeko landatu genuen zuhaitza –esaten dio amonak–. Martintxok eta zuk bizi izandako abenturak, pozak, tristurak...

—Egia da.



Amona logelatik irten da.

Motx, globoa besarkatuz, bere lagun minarekin bizi izan zuen abentura potolo bat ekarri du gogora, parkean bizi izan zuena hain zuzen, aspaldi ez dela...



Egun hartan, Martintxo eta Motx eskolatik irten eta amona eta Txintxo txakurrarekin batera parke handira abiatu ziren.

Amonak hauxe esan zien:

—Ez sartu lorategi barruan, mesedez, bertan zulo arriskutsuak daude eta!

Motxek baietz oihukatu zion, jolasten ari zen bitartean; Martintxok, mutua zenez, baietz egin zuen buruaz, eta lagunarekin elkartu zen.